

DONOSTIAKO KAIAREN EGOERAREN INGURUKO **MOZIOA**

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Donostiako kaiaren egoera dela-eta, Udalbatzaren osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko martxoaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Udalbatzaren urtarrileko osoko bilkuran, kaiaren inguruko ohiko mozio bati erantzunez, alkateak Eusko Jaurlaritzarekin hartu-emanak zituela esan zuen. Denok badakigu, aurreko legealdian, Donostiako Udalbatzak Jaurlaritzari eginda zuen proiektua gauzatu zezala eskatu ziola. Argi dago Jaurlaritzak entzungor egin ziola Udalbatzaren eskaerari.

Orain, aurreko proiektu hura, edo berri bat, gauzatu den jakin nahi dugu. Berria bada, integrala den ala ez jakin nahi dugu; hau da, arrantza ere kontuan hartuko den, edo besterik gabe aisialdirako ontzien egoera hobetzea helburu duen. Gainera, kofradia eta “portaviones” izeneko eraikuntzak berrikuntzarik izan dezakeen edo/eta proiektuan kontuan hartuko den, eta honekiko Udal Gobernuaren irizpidea zein den Udalbatzak jakitea garrantzizkoa dela deritzogu, Udaleko erabakigune nagusia berau denean.

Hauek izan ziren gure argudioak otsailean alkatearen agerraldia batzordean eskatzeko, baina agerraldi hartan Eneko Goiak, Eusko Jaurlaritzarekin hainbat bilera burutu zituela esateaz beste, Udal Gobernuak kairako nahi duen proiektua zein den ez zuen azaldu, eta gero udal taldeoi ere ez digu helarazi. Gure ustez, Donostiako kaia, ez bakarrik kokapena kontuan hartuta, baizik eta Donostiako historia ulertzeko nahitaezkoa denez, Udal Gobernuak argi izan beharko luke eremu horren etorkizuna zein izango den.

Alkateak, batzordean, Jaurlaritzaren aurreikuspenak ezagutarazi zizkigun. Hainbat arlotan hobekuntzak nabariak dira, baina arrain lonja ez izatea ez da gure gustukoa. Hala ere, oraindik ere, proiektua egin gabe dago. 2012an, hauteskundeak baino lehen, Jaurlaritzak proiektu erakargarri bat aurkeztu zuen baino gobernu berriak ez zuen gauzatu. Lau urte geroago eta hauteskunde aurretik

